

Meatzarien 1890eko maiatza

Etxebizitza duinaren eta zortzi orduko lanaldiaren aldeko lehenengo greba historikoa 1890ean egin zen Euskal Herrian, Bizkaiko meatzetan. Grebaren erdigunea Trapagarango Zugaztieta auzoa izan zen eta handik Ezkerralde osora hedatu zen. Gobernuak “gerra egoera” deklaratu zuen.

DANIEL UDALAITZ

LANGILEENTZAKO etxebizitza alta –batez ere meatze inguruan eta oro har Ezkerralde osoan– liskar bortitzak eta grebak eragin zituen arazo kezagarria izan zen XIX. mendeko azken hamarkadetatik aurrera. Greba haiek eta Chicagoko sarraskiaren ondoren nazioartean berpiztu zen langile mugimendua aldi berean gertatu ziren. Urte berean, gainera, 1890ean, mundu osoan maiatzaren lehen ospatzeko deia egin zen. Maiatz hartan egin zen, hain zuzen ere, Bizkaiko meatze inguruko lehenengo greba. Han hasi zen eta Ezkerraldera hedatu zen gero, Bizkaiko Labe Garaiek sortu zituzten enpresa hain garrantzitsuak kokatuta zeuden lekura.

Sasoiko langileak eta haien barrakoiak

1870eko hamarkadan izandako gerra karlistaren ondoren, Bizkaiko burdin meategiak izan ziren sasoi-ko milaka langileren lantoki. Mineral erauzketan aritzen ziren. Baina han lan egiten zuten bakarrak ez ziren zenbait hilabeterako etorri eta gero etxera bueltatzen ziren langileak; meatze inguru hura ehunka familien-



EUSKAL HERRIKO MEATZARITZAREN MUSEOA

Goian, meatzarien omenez marraztutako irudia. Behean, langileek greba egin eta gero lortutako etxebizitza.

handiena hartu zuen Bizkaiko udalerria. Hamar urte eskasetan, 1877tik 1887ra, %406 igo zen bertako biztanleria.

Meatzarientzako lehenengo etxebizitzak meatzeen oinetan egurrez egindako txabolak izan ziren. Meatzaritza konpainiek eraiki zituzten, eta erraz desmuntatzeko eta batetik bestera eramateko modukoak ziren. Langileak berak ziren langileburuen gidaritzapean “barrakoi” edo “kuartel” haiek muntatu eta desmuntatzen zituztenak. Barrakoiak meatzetako langileen zaindarien eta kontratisten ardurapean zeuden, baita jakiez hornitzeko leku bakarra ziren “kantinak” ere. Etxebizitza haie- tan lotarako lekua baino ez zen egoten: lur- rean jarritako ohol bat. Horri “ohe beroa” esaten zitzaion, langileek txanda- ka lan egiten zuten- ez ohe behin ere ez zelako hutsik gelditzen. Ondorioz, batzuk lanera joateko jaiki orduko besteak oheratzen ziren, hozteko denborarik eman gabe. Ez zegoen aulkirik, ezta mahai edo komunik ere, eta meatzeko langileen zaindariari 0,25 pezetako

tzako bizitoki eta lan leku ere bilakatu zen. Esaterako, gaur egun Trapagaran dena izan zen iritsitako jende pila

eman gabe. Ez zegoen aulkirik, ezta mahai edo komunik ere, eta meatzeko langileen zaindariari 0,25 pezetako

“Etxe merkeak” izenekoak

Meatze inguruko etxebizitzaren arazoa ez zen aipatutako grebarekin konpondu, baina konponketaren hasiera izan zitekeen. Greba baino bost urte geroago, 1895ean, meatzetako egoera lehengo berbera zen: han jarraitzen zuten barrakoiak eta hantxe zeuden kantinak. Alabaina, meatzarien greba hark ahalbideratu zuen instituzio, sendagile higienista eta arkitektoak langileentzako etxebizitza eredu egokia aurkitzeko molda zitezen. Hortik sortu ziren “Etxe Merkeak” izenarekin ezagutzen direnak. Etxe haien ezaugarriek tipologia berezia markatu zuten Hego Euskal Herriko

etxegintzan. Etxe merkeak familia bakarrekoak, bikiak edo elkarri atxikiak izaten ziren, eta lorategi txiki bat eta baratze txiki bat izaten zuten. Barrualdean, berriz, gutxienek sukaldea, komuna eta hiru logela. Luxua meatzarien barrakoiarekin alderatuta.

Lehenengo etxe merkeak Manuel Maria de Smith arkitektoak eraiki zituen 1916an, Bizkaiko Labe Garaiak-Oentzat. Pentsatzekoa denez, etxe merkeen eredu hori meatze inguruan eta Ezkerraldean hasi eta Bizkaiko beste fabrika gunetara eta euskal lurralde osora hedatuz joan zen gero.

errenta ordaindu behar izaten zitzaion. Pentsatzekoa denez, meatzariak zikinkeria artean eta higie-ne baldintza kaskarretan bizi ziren.

1890eko greba

Gauzak hala, 1890ean egoera jasanezina izatera iritsi zen eta meatzariak baldintza haietan bizitzeari uko egin zioten. Horrexegatik egin zuten urte

Jeneralak “etxebizitza”
haietan sentitutako higuina
hitz hauekin adierazi omen
zuen: “Txerriek ere ez dute
halako etxerik merezi”

hartako maiatzean grebarako deia. Barrakoiak kendu eta jakiak kantinetatik kanpo erosteko eskubidea izatea izan zen egindako lehen aldarrikapena. Meatzariak Zugaztieta auzotik Ortuellara jaitsi ziren eta 3.000 langile bildu ziren han. Garai hartan *El Noticiero Bilbainok* honela deskribatu zuen gertatutakoa: “Goizeko zortzietan hainbat langile talde Las Conchas, La Salve eta Matamoroseko gainetatik jaisten hasi ziren, Ortuellan biltzeko asmoz. Ortuellarako bidean oihuka egin zuten: ‘behera barrakoiak, behera kuartelak, gora greba, gora meatze ingurua, zortzi orduko lana!’. Bederratzia eta erdietan Ortuellako plazan

3.000 langile inguru bildu ziren ‘behera inposatutako dendak!’ (kantinak) oihukatuz. Gero, grebalariek errepidez Desierto aldera jo zuten –gaur egungo Barakaldo– neurrigabe oihu hauek botaz: ‘behera kuartelak, kanpora inposatutako dendak, gora meatzarien batasuna, behera burgesak, gora langileak, gora gure bandera!’. Ondoren Portugalete aldera joaten ahalegindu ziren. Han jadanik 9.000 langile inguru zeuden zain, baina foralek, guardia zibilek eta Garelano-ko militarren bi konpainiek, baionetak eskuetan, galarazi egin zieten, eta langileak inguruetak gainetan barre- na sakabanatu ziren”.

Hogeita hamar bat meatzariko talde batek errepresio indarrak baztertzea lortu eta La Bizkaia, Nerbioiko Ontziolak eta Labe Garaiak enpresetara iris- tean hango langileei grebarako deia egin zien. La Bizkaian tentsio handiko uneak izan ziren. Bilbo-ko egunkariaren arabera, grebalari talde handi bat guardia zibilak eta foralak zain- tzen ari ziren enpresa hartan sartzen saiatu zen. Errepresio

Barrakoiak kentzea eta
jakiak kantinetatik kanpo
erosteko eskubidea izan zen
grebarekin egindako lehen
aldarrikapena

indarrek eragozteko ahaleginak egin zituzten baina langile kopuru handi hura harrika hasi zitzaion guardiei eta haiek armekin erantzun zuten. Tiroketen ondorioz langile bat hil eta beste zazpi zauritu zituzten. Guardia foral batek harrikada jaso zuen buruan eta zauri larriak izan zituen. Berehalaxe, La Bizkaia eta Nerbioiko Ontziolak-eko langileak greban jarri eta Labe Garaiak fabrikara joan ziren; hango langileek ere greba hasi zuten. Hiru enpresetako plantillek ia 4.000 langileko kopurua osatzen zuten. Hurrengo egunean, maiatzaren 10ean, grebalariak 21.000 inguru ziren. Hain kopuru handiari aurre egin ezinik, errepresio indarrek Loma jeneralari deitu zioten langile- en altxamenduarekin bukatu eta gerra egoera deklaratu zezan. Baina hala ere, grebalariek hilaren 16an Bizkaiko hiriburuko hainbat lekutan lana gelditzea lortu zuten; besteak beste Olabeagan, itsasadarreko fabriketan eta zama lanetako nasetan.

El Noticiero Bilbainok dio azkenean meatzarien ordezkariak Loma jenera- larekin elkartu eta jenerala barrakoiak bisitatzera joatea lortu zutela. Jenera- lak “etxebizitza” haietan sentitutako higuina hitz hauekin adierazi omen zuen: “Txerriek ere ez dute halako etxerik merezi”. ■

